



## AKTA

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2004ko martxoaren 17a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena    **HASIERA-ORDUA:** 19:10    **AMAIERA-ORDUA:** 19:30

**BERTARATUAK:**    **Alkatea**  
Mirari Arruabarrena Elizalde

**Zinegotziak**

Eneko Olariaga Arruti, Eugenio Cotado Iturain, Noemi Ostolaza Arkauz, Andoni Sarasua Oleden, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxel Genoba Solaberrieta, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

**Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi



## Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2004ko urtarrilaren 27ko ohiko bilkurako akta.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, 8/2003 zenbakidun kreditu aldakuntzarako espedientea.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 1/2004 zenbakidun kreditu aldakuntzarako espedienteari.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko Diruzaina Karmele Sanz Urdangarin izendatzea.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Alkateari ahalmen zabala ematea “Agenda 21” hitzarmena izenpetzeko.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Elgetako Alkatea den Patxi Basauri Elcoro izendatzea, Kutxako Batzarrean Kontseilari Orokor izateko.
- 7.- Onartzea, egoki bada, “IZARTU” izeneko egitarauan arautzen diren dirulaguntzak eskatzea.
- 8.- Dagozkion udal erabakiak hartzea, egoki bada, Santiagoko bideari buruz.



## Esan-eginak

### **1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2004KO URTARRILAREN 27KO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**ONARTZEA** Udalbatzarrak 2004ko urtarrilaren 27an egindako ohiko bilkurako akta.

### **2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, 8/2003 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKUNTZARAKO ESPEDIENTEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2004ko urtarrilaren 20an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA** Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 8/2003 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 201.294,57 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu Transferentzia.

### **3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 1/2004 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKUNTZARAKO ESPEDIENTEARI.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2004ko martxoaren 15ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2004ko aurrekontu propioari dagokion 1/2004 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 4.692.141 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu Gehigarriak.

**2.-** Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzailletza.

**Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzarkideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

#### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO DIRUZAIN KARMELE SANZ URDANGARIN IZENDATZEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2004ko martxoaren 15ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA**, Karmele Sanz Urdangarin, N.A.N. 35.774.338-T zenbakiduna, Orioko Udaleko Diruzain, dagokion lanpostuaren eskubide eta betebeharrak guztiak.

Hori guztia, alde batetik, orain arteko Diruzain Florentino Marticorena Arrizabalagaren borondatezko edota aurretiazko erretiroa 2004ko martxoaren 21etik aurrera deklaratu ondoren, eta bestetik, "LKS Aholkularitza" enpresak eginiko eginkizunen eskuliburuan aipatzen den gisan, eta Udal honetako 2003ko abenduaren 29ko ohiko bilkuran behin betiko onartu zen, Tekniko Ekonomikoaren zeregina da Diruzainaren sinadura izatea.

## **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEARI AHALMEN ZABALA EMATEA "AGENDA 21" HITZARMENA IZENPETZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Diputatuen Kontseiluak 2004ko martxoaren 8ko bileran ondoren aipatzen den Erabakia hartu zuen:

*«Lehenengo.* Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak - Garapen Eramangarriko Departamentuaren bitartez, IHOBE SA Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK eta Urola Kostako udalek sinatzekoa den Lankidetzaren Hitzarmenaren Proiektua, UDALTALDE 21 UROLA KOSTA proiektuaren barne, Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaiako udaletan Tokiko Agenda 21 ezartzeari buruzkoa. Hitzarmenaren testua erabaki honekin batera doa, eraskin gisa.

*Bigarren.* UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEARI 30.000,00 euroko dirulaguntza izenduna ematea aurrekontuko 1.0520.210.470.00.00.2004 kontusailaren kargura.

*Hirugarren.* Baimena ematea Garapen Eramangarriko Foru Diputatuari Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean hitzarmen hori sinatzeko eta zuzen bete dadin komeni den guztia egin, erabaki eta ebazteko.

*Laugarren.* Agindua ematea hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin».

ERANSKINA



Sabin Intxaurre Mendibil jauna, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurugiro Saileko IHOBE, SA Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoko lehendakaria, sozietatearen izenean eta ordezkartzan.

Luis M.<sup>a</sup> Oyarbide jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Eramangarrirako Departamentuko diputatua, haren izenean eta ordezkartzan.

Javier Zarraonandia Zuloaga jauna, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEko lehendakaria, elkarte horren izenean eta ordezkartzan.

Igor Iturain Iburguren jauna, Aiako Udaleko alkatea, udalaren izenean eta ordezkartzan.

José Larrarte Agirre jauna, Aizarnazabalko Udaleko alkatea, udalaren izenean eta ordezkartzan.

Josu Ezenarro Gonzalez-Etxebarri jauna, Getariako Udaleko alkatea, udalaren izenean eta ordezkartzan.

Mirari Arruabarrena Elizalde andrea, Orioko Udaleko alkatea, udalaren izenean eta ordezkartzan.

Maite Etxaniz Balenciaga andrea, Zarauzko Udaleko alkatea, udalaren izenean eta ordezkartzan.

Gorka Unanue Zabala jauna, Zestoako Udaleko alkatea, udalaren izenean eta ordezkartzan.

M.<sup>a</sup> Eugenia Arrizabalaga Olaizola andrea, Zumaiako Udaleko alkatea, udalaren izenean eta ordezkartzan.

Esku hartzen dutenek, nork bere karguko eginkizunak betez, parte hartzen ari diren bitartean elkarri hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortzen diote:

## AZALPENA

*Lehena.* Rio de Janeiron (Brasil) 1992an egin zen Ingurumen eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian Agenda 21 izeneko estrategia orokorra erabaki zen garapen iraunkorraren bidetik planetaren suntsipena eragotzi lezaketen politika ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak hartzeko. Garapen iraunkorraren aldeko ekimenak duen garrantzia kontuan hartuta, Agenda 21eko 28. kapituluaren dei egiten da udal administrazioen, herritarren, gizarte erakundeen eta enpresen arteko elkarrikeria eta adostasunaren bidez tokian tokiko Agenda 21 erabaki dadin.

Ingurumeneko auziari irtenbide orokorra eman nahi bazaio, espazioan eta denboran ugari izan behar duten tokian tokiko ekimenak hartzea da gakoa. Eta, horregatik bada, euskal udalerrietan Agenda 21 abian jartzea lehentasuneko jomuga bilakatu da 2002-2020 Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian zehazten ari den Euskadiko ingurumen politikarentzat.



Johannesburgeko Lurrari buruzko iragan gailurrean, berretsi egin zen Tokiko Agendak 21 ezartzearen aldeko apustua, hitzak ekintza bihurtzeko biderik eraginkorrenzat hartuz.

«Gautengo adierazpenak, Regional Government Network for Sustainable Development» erakundea eratzetik atera zen dokumentuak, berretsi egiten du sarean egindako lanak duen garrantzia, maila guztietan (tokian tokikoan, autonomikoan, estatalean eta nazioartekoan) garapen iraunkorraren aldeko helburuak arrakastaz lortzeko.

*Bigarrena.* Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) dituen helburuen artean dago hiri ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea hiri plangintzan ingurumen kontsiderazioak eta ondare historikoaren babesa efektiboki sartuz. Gainera, 87. artikuluan, adierazten du, udal erakundeek ingurumenari buruzko udal ordenantzak onartu behar dituztela. Eta horrek esan nahi du udalek protagonismo gehiago izan behar dutela beren hiri ingurumenaren kudeaketan.

*Hirugarrena.* Ingurumen arloko Ekintza Planetan (Tokiko Agenda 21), udala garapen iraunkorreko printzipioen arabera kudeatzeko bidea erraztuko duten ekimen, programa eta estrategiak landu behar dira, hau da, aukera izan behar da unean uneko eta tokian tokiko beharrak asetzeko, baina gureak ez diren geografia eremuen edota datozen belaunaldien garapena baldintzatu gabe.

*Laugarrena.* Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurugiro Departamentuak ahaleginak egingo ditu 2000-2020 Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian ingurumenari buruz jasotako helburuetara arian-arian iristeko Tokiko Agenda 21 Sustatzeko Programaren bidez, horretarako lortutako emaitzen jarraipena eginez. Jaurlaritzako sail horrek, IHOBE S.A. Ingurumena Sustatzeko Sozietate Publikoaren bidez, sustapen publikoaren estrategia praktikara eraman, udalek lan tresnetan dituzten beharrak atzeman eta ingurumenaren inguruko jarduera teknikoak koordinatuko ditu.

*Bosgarrena.* Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Eramangarrirako Departamentuaren bidez, iraunkortasuneko irizpideak bere egiten ditu jardun guztietan, horrela lurralde historikoak garapen iraunkorra izan dezan. Aldi berean, Gipuzkoan aurrera eramaten ari diren Tokiko Agenda 21 programak egiteko prozesuetan interes handia duela behin eta berriz esan du eta hitza ematen du udal entitateekin elkar lanean arituko dela Agenda horiek egiten, ingurumen politikaren lan ildoetako bat horixe delako.

*Seigarrena.* Aia (1.653 bizt.), Aizarnazabal (555 bizt.), Getaria (2.504 bizt.), Orio (4.614 bizt.), Zarautz (21.466 bizt.), Zestoa (3.102 bizt.) eta Zumaiako (8.660 bizt.) udalek uste dute udalerrietan aurkezten diren ingurumen alderdietako askori Tokiko Agenda 21 ereduaren bidezko kudeaketa baten bidez hel dakiekeela, garapen iraunkorraren aldeko plan eta ekintza zehatzak aurrera eramateko ekimen publikoa baita.

*Zazpigarrena.* UDALTALDE 21 UROLA KOSTA proiektuaren helburu nagusia UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN zuzendaritzapean eta Foru Aldundiarekin eta IHOBE Elkarte Publikoarekin koordinatuta, udalen lan taldea eratzea da, ezar ditzan Agenda 21 ekimenak, parte hartzen duten udaletarako prestakuntza eta laguntza bateratuaren bidez.



Horren ondorioz, IHOBE Elkarte Publikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaiako udalek eta UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK, goian aipaturikoarekin bat etorritik, lankidetzan hitzarmen hau egiten dute, ondoko baldintza hauei jarraituz,

## BALDINTZAK

### *Lehena. Hitzarmenaren Xedea.*

Hitzarmenaren helburua Foru Aldundiaren, IHOBE Elkarte Publikoaren, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN eta ondoko udal hauen arteko harremanak arautzea da:

—Aia.

—Aizarnazabal.

—Getaria.

—Orio.

—Zarautz.

—Zestoa.

—Zumaia.

UDALTALDE 21 UROLA KOSTA proiektuaren barruan, udalerririk horietan Tokiko Agenda 21 ekimenak gauzatzeko.

*Bigarrena. IHOBEk, FORU ALDUNDIAK eta UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK hartzen dituzten konpromisoak.*

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK, IHOBEk eta FORU ALDUNDIAK ondoko konpromiso hauek hartzen dituzte hitzarmen honen bidez:

—IHOBEk, FORU ALDUNDIAK eta UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK UDALTALDE 21 UROLA KOSTA proiektua koordinatu eta zuzenduko dute, 2002-2020 Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian adierazitako helburu estrategikoei jarraituz. Proiektuaren jarraipena egiteko, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK jada eratuta dagoen Tokiko Agenda 21 ekimeneko Lan Batzordean integratuko ditu IHOBE eta FORU ALDUNDIA eta egingo dituzten aldizkako bileretarako deia egingo die. Gainera, beharrezkotzat hartzen denean, aldean arteko bilerak egin daitezke proiektuaren zuzendaritza gisa, aurrerantzean egin beharrekotzat lanak bideratzeko eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ingurumen politikak markatutako bidean doazela bermatzeko.

—IHOBEk, FORU ALDUNDIAK eta UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK Tokiko Agenda 21 ekimenaren barruan sistematikoki informazioa emango diote elkarri (adierazle, praktika on, finantzaketa bide eta abarrei buruzkoa).





—UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK, beharrezkotzat hartzen bada, proiektuaren laguntza teknikoa emateko UDALTALDE 21 UROLA KOSTA proiektuan lana aurrera ateratzeko behar den aholku etxea kontratatzeko egingo den lehiaketa egin eta erabakiko du.

—IHOBE eta FORU ALDUNDIAK horrela eskatuko dioten udalei eta UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEARI udaletxean proiektua daraman teknikari arduradunari laguntzeko arlo horretan ikasitako pertsonak kontaktatzeko kudeaketak egingo dizkiete, Tokiko Agenda 21 ekimena jartzeko esperientzian udaletxeetan lan egin dezaten.

—IHOBEK %100ean finantzatzeko ditu hitzarmen honen indarraldian UDALTALDE 21 UROLA KOSTA proiektuan udaletxe horietan eta hango instalazioetan egingo diren Ekoscanak, 10.000 biztanle baino gehiagoko udaletxeetan gehienez bi eta gainerakoetan bat.

—IHOBEK eta FORU ALDUNDIAK Tokiko Agenda 21 ekimenean egiten ari diren aurrerapenen berri eman eta zabalduko dute. Hitzarmen honen barruan egingo diren komunikazioetan UDALTALDE 21 UROLA KOSTA proiektuaren erreferentzia sartuko da.

—IHOBEK UROLA KOSTAKO udalerrien Tokiko Agenda 21 ekimenaren orria koordinatu eta eguneratuta edukiko du Interneten, [www.ingurumena.net/udala](http://www.ingurumena.net/udala) domeinuaren bidez.

—UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK UDALTALDE 21 UROLA KOSTA proiektuan parte hartzen duten udalen diru ekarpenak bildu eta bideratuko ditu, baita IHOBE eta Foru Aldundiak, hitzarmen honen arabera, egin ditzaketan ekarpenak ere.

—Hitzarmen honen Eranskin gisa joango diren Urteko Kudeaketa Planetatik etorriko den finantzaketa, ondoko banaketa honen arabera ezarriko da:

—Eusko Jaurlearitzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Sailak, IHOBE elkartearen bidez, %50 jarriko du.

—Gipuzkoako Foru Aldundiak %30 jarriko du.

—Proiektuan parte hartzen duten Udalek gainerako %20 jarriko dute.

Urteko Kudeaketa Planek gehienez 100.000 euroko kostua izango dute horietako bakoitzean (BEZ kanpoan utzita). Hitzartutako zenbatekoen ordainketa UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN bidez egingo da ondoko era honetan: Hasierako ordainketa bat, urteko Kudeaketa Plan bakoitzean guztira ezarritako zenbatekoaren %40, Kudeaketa Planak izenpetzerakoan, eta %60ko amaierako ordainketa abenduan. Amaierako ordainketa horren aurretik UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK egindako gastuak zurrizteko txostena egingo du. Urteko Kudeaketa Planeko jardunak erabat betetzeari dagokion gastua zurrizteko ondoren, haren likidazioa egingo da eta esku hartzen duten alderdien onarpenera jarriko. Guztira egindako gastua ez bada Kudeaketa Planean seinalatutako zenbatekora iristen, itzuli egin behar da partehartzaileetako bakoitzak jarritako parte hartzearen ehunekoan, edota alderdiek alde aurretik onartutako jardun osagarrietarako erabili, horiek erabakitzen duenari jarraituz. Fakturak UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK egingo ditu eta BEZa barne



izan

dute.

*Hirugarrena. Parte hartzen duten Udalen konpromisoak.*

Udalek ondoko konpromiso hauek hartzen dituzte hitzarmen honen bidez:

—Aurreko klausulan ezarritako zenbatekoa finantzatzea, hau da, %20, hitzarmen honetako azalpeneko seigarren puntuan adierazitako biztanle kopuruaren proportzioan kalkulaturik zenbateko hori (Zarautzek kopuru finko bat jartzen du). Hitzarmen honen barruan finantzatuko diren lanek indarrean dagoen arautegia bete behar dute, proiektu bera diru laguntza iturri ezberdinen bidez ez finantzatzeari dagokionez.

—Tokiko Agenda 21 proiektua abian jartzea, Udal bakoitzaren konpromiso politiko eta etengabeko hobekuntza gisa, udalerriaren garapen iraunkorrari egiten dioten ekarpen gisa, horretarako proiektuaren arduradun gisa ondokoak izendatuz: UDALTALDE 21 UROLA KOSTAko Teknikari-Koordinatzailea.

—Igor Iturain, Aiako Udaleko alkatea.

—José Larrarte, Aizarnazabalko Udaleko alkatea.

—Antonio Arruti, Getariako Udaleko zinegotzia.

—Eneko Olariaga, Orioko Udaleko zinegotzia.

—Alejandro Vázquez, Zarauzko Udaleko zinegotzia.

—Gorka Unanue, Zestoako Udaleko alkatea.

—Mikel Olaizola, Zumaiako Udaleko zinegotzia.

Proiektu honen garapenean aktiboki parte hartzea, UDALTALDE 21 proiekturako ezarritako metodologia gauzatu, programatu eta erabiliz.

*Laugarrena. Hitzarmenaren indarraldia.*

Hitzarmen hau izenpetze egunean sartuko da indarrean eta 2005ko abenduaren 31 bitarteko indarraldia izango du, automatikoki luza daitekeelarik alderdiek berariaz eta idatziz horrela erabakitzen badute.

Urtero, abenduan, alderdiek batera finantzatu behar dituzten hurrengo ekitaldiko ekintzak aurkeztu behar dituzte hurrengo ekitaldian onartzeko, eta, behin onartu ondoren, hitzarmenaren Eranskin gisa joango dira.

Hitzarmena amaitutzat eman dezake izenpetzen duten alderdietako edozeinek, hiru hilabete aurretik gaztigatzen badu eta, dena dela, egiten ari ziren kooperazio guztiak amaituta badaude.





2. Gizarteratzea eta herritarrak sentsibilizatzea	60.000 €
GUZTIRA	100.000 €

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**ONARTZEA**, Alkateari ahalmen zabala ematea “Agenda 21” hitzarmena izenpetzeko.

**6.- ONARTU, EGOKI BADA, PATXI BASAURI ELKOROREN IZENDAPENA, ELGETAKO ALKATEA, KUTXAKO BATZARREAN KONTSEILARI OROKOR IZATEKO, ORIOK, ELGETAK ETA AMEZKETAK OSATZEN DUTEN UDAL TALDEAREN IZENEAN.**

Kontuan izanik Udalbatzak 2004ko urtarrilaren 27ko ohiko bilkuran **ONARTU** zuela **ORIOK, ELGETAK eta AMEZKETAK** udal taldea osatzea “**CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIÁN-GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA**” finantza-erakundearen Gobernu Batzordeetan Kontseilari Orokorrak aukeratzeko hautaketan ordezkari izateko.

Izanik lau taldetan 11 udal elkartu direla, eta banaketa berriaren arabera, Orioko Udalarri Elgeta eta Amezketako Udalekin batera Kontseilari Orokor bat (1) dagokiola, Orioko Udalbatzako Alkate-Presidenteak Udalbatza honi proposatu nahi dio **PATXI BASAURI ELKORO**ren izendapena (Elgetako Alkatea), **KUTXA**ko Batzarrean Kontseilari Orokor izateko, aipatu udalerriek osatzen duten taldearen izenean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV), Olariaga (EAJ-PNV), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ-PNV), Sarasua (EAJ-PNV), Legarra (EA), San Sebastián (EAJ-PNV), Etxeberria (EAJ-PNV), Génova (EAJ-PNV) eta Azkue (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO HAMAR BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzioarekin, guztira **ABSTENTZIO BAT**, honako hau erabakitzen du:

**ONARTZEA PATXI BASAURI ELKORO**ren izendapena, Elgetako Alkatea, “**CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIÁN-GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA**” finantza-



erakundearen Batzarrean Kontseilari Orokor gisa, Oriok, Elgetak eta Amezketak osatzen duten udalbarri taldearen izenean.

## **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, “IZARTU” IZENENKO EGITARAUAN ARAUTZEN DIREN DIRULAGUNTZAK ESKATZEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2004ko martxoaren 15ean egindako Hirigintza, Ingurumen eta Zerbitzu batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ESKATZEA** eta **ONARTZEA** Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuak 2004ko urtarrilaren 21eko Aginduan ezarritako dirulaguntzak. Abenduaren 16ko 306/2003 Dekretuan aipatzen den markoaren arabera dirulaguntzen deialdia egin zen, eta bertan Euskal Autonomia Erkidegoan hirigune gutxietsien biziberritze sozio-ekonomikoa eta ingurunearen eraberritzean laguntzeko programa integralak bideratzeko neurriak zehazten dira (Izartu programa). Ondoren aipatzen diren dirulaguntzak proiektu horretarako dira:

**PROIEKTUAREN IZENA:** ORIO 2008, BIZIBERRITZE

SOZIO-EKONOMIKOA ETA

INGURUNEA ERABERRITZEKO

PROGRAMA INTEGRALA.

**AURREIKUSITAKO INBERTSIOA:** 9.044.258,00 euro.

**ESKATUTAKO LAGUNTZA:** 4.522.129,00 euro.

**EXEKUZIO DENBORA:** 2004 - 2008



## **8.- DAGOZKION UDAL ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, SANTIAGOKO BIDEARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2004ko martxoaren 15ean egindako Hirigintza, Ingurumen eta Zerbitzu batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

1.- **IGORTZEA** idatzi bat Udal honetako alkatetza-Presidentetza honetatik Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Euskal Kultura-Ondarearen Zentrora, Euskal Herria zeharkatzen duen Santiagoko Bidea (Kostako bidea) dela eta, Orioko Udalerriari dagokionean. Batetik, jakinarazi nahi da Benta inguruan proiektuan dagoen bidezidorra ez dela titularitate publikokoa, eta beraz, proposaturiko bidea aldatu egin beharko litzateke, eta Benta-Igeldoko bide lokaletik joan beharko luke. Eta bestetik, Orioko Udalak komenigarri eta beharrezko ikusten du oinezkoentzako bi pasabide egitea. Ezaugarri hauek izango lituzkete:

- A-8 Autopista egin aurretik kostaldeko Santiagoko Bidea Andu baserritik behera zuzenean igarotzen zen. Egun, A-8 Autopista dela eta hori ezinezkoa da, eta bide luzea egin behar da A-8 autopistaren azpitik zubitxo igaro Orioko Antilla hondartzara daraman Txanka bidera iritsi ahal izateko. Hori dela eta, Udalak jatorrizko bidea errekuperatu nahi du, eta horretarako oinezkoentzako pasabide bat egitea proposatzen du aipatu dugun A-8 autopista zeharkatzen duen zubitxoaren gainetik.

- Era berean, kontuan izanik A-8 autopistak Orio ibaia alderik alde zubi luze baten bidez zeharkatzen duela, Orioko Udalak komenigarri eta beharrezko ikusten du zubi horren azpitik oinezkoen pasabide bat egitea, Zarauzko herriarekin bat egin eta jatorrizko Santiagoko Bideari jarraipena emateko.

2.- **ESKATZEA**, Orioko Udalerriari dagokionean, Santiagoko Bidearen (Kostako Bidea) proiektuaren egokitzapena, bilkurako akordio honek aurreko puntuan adierazitakoaren arabera.

3.- **ADIERAZTEA** Orioko Udalaren adostasuna Euskal Herriko Santiagoko Bidearen (Kostako Bidea) ibilbidearekin, Orioko udalerriari dagokionean, aurreko puntuan adierazitako salbuespenak kontuan hartuta.



# ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

**Udalbatzarraren bilkurako akta •**

**2004/03/17**

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA**